

KIROLBUY

-Merkatuaren segmentazioa:

Gure bezeroen definizioa:

-Gure zerbitzua kirolekin lotuta dagoela kontuan hartuta, gure bezero nagusiak kirolariak izango lirateke. Gure bigarren mailako bezeroak izan daitezke kirol berri batean hasteko asmoa duen edozein pertsona, kirol horren materialik eduki gabe.

Bezero horien ezaugarriak:

-Bezero nagusiak (kirolariak): Askotan, artearekiko maitasunarengatik kirola egiten duten kirolariek ez dakite zer material erosi kirol hori egiten jarraitzeko; kasu askotan, oso zaila izaten da produktu onak lortzea prezio merkean, orduan, beren kirolean jarraitzeko materiala sustatzen diegu.

-Beste bezeroak (kirol berri batean hasten diren pertsonak) : Askotan, kirol berri batean hasterakoan, ez dakigu zer material erosi hau praktikatzeko. Kasu gehienetan, itxuran bakarrik jartzen dugu arreta, materialen erabilgarritasunaz ahazten. Horrekin batera, uste dugu produktu garestienak hoberenak direla, baino askoetan ez da horrela. Horregatik, produktu onak prezio arrazoitsu batean sustatzen dizkiegu.

